

ERANSKINAK

I.Eranskina - ELKARRIZKETAK EGITEKO BAIMENAK

Zuzendari Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Ariane Godoy Peredaren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Ikasle honek Practicum-ean egiten ari den zenbait behaketa eta dokumentuen azterketa erabiltzeko baimena eskatzera natorkizu, aipatu lana egin ahal izateko, beti ere ikasgelako irakaslea ados egongo balitz. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Lan honen gaia ondoko hau da: “Gurasoen banaketak haurrengan izaten duen eraginaren trataera Eskolan”. Haurrei egoera honetan laguntzeko prozesuen gaineko ezagutza sakontzea da helburua, horretarako errealitatearen azterketa kualitatiboa eginez. Bide honetan elkarrizketak ere egingo ditu bere lanean parte hartzeko prest dauden eskolako partaide batzuekin.

Datuak, ez dira beste ezertarako erabiliko, bakar bakarrik GrAL egiteko. Bestalde, partaide guztien identitatea -eskola, irakaslea eta ikasleak-, konfidentziala izango da eta zuk nahi izanez gero ikasleak saio bat prestatuko du lanaren emaitzen berri zuri emateko (edo eskolari nahi baduzue). Ados bazaude, sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Argibide gehiago behar badituzu behean agertzen den e-postan eta telefonoetan aurkituko nauzu erantzuteko prest.

Eskerrik asko zure arretagatik



Leioa, 2017-02-08

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Leioako campusa, Sarriena z/g

Leioa- 48940

esther.zarandona@ehu.eus

Tf.: 946014600/639368288

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: eskoletako behaketak eta dokumentuen azterketa zertarako diren ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula datu hauek aipatu eginkizunerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:

Data:

Irakasle Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Ariane Godoy Peredaren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Ikasle honek Practicum-ean egiten ari den zenbait behaketa eta dokumentuen azterketa erabiltzeko baimena eskatzera natorkizu, aipatu lana egin ahal izateko, eta baita zuri elkarrizketa bat egiteko ere, beti ere zuen eskola ados egongo balitz. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Lan honen gaia ondoko hau da: “Gurasoen banaketak haurrengan izaten duen eraginaren trataera Eskolan”. Haurrei egoera honetan laguntzeko prozesuen gaineko ezagutzan sakontzea da helburua, horretarako errealitatearen azterketa kualitatiboa eginez.

Elkarrizketaren gidoia aldeztu aurretik ezagutuko duzu. Elkarrizketaren edukia eta hartuko diren beste datuak, ez dira beste ezertarako erabiliko, bakar bakarrik GrAL egiteko. Bestalde, partaide guztien identitatea -eskola, irakaslea eta ikasleak-, konfidentziala izango da eta zuk nahi izanez gero ikasleak saio bat prestatuko du lanaren emaitzen berri zuri emateko (edo eskolari nahi baduzue). Ados bazaude, sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Argibide gehiago behar badituzu behean agertzen den e-postan eta telefonoetan aurkituko nauzu erantzuteko prest.

Eskerrik asko zure arretagatik



Leioa, 2017-02-08

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Leioako campusa, Sarriena z/g

Leioa- 48940

esther.zarandona@ehu.eus

Tf.: 946014600/639368288

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: eskoletako behaketak eta elkarrizketa zertarako diren ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula datu hauek aipatu eginkizumerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:

Data:

Guraso Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Ariane Godoy Peredaren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Lan hau aurrera eramateko ikasleari irakasle ezberdinei elkarrizketak egitea eskatu diogu. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Lan honen gaia ondoko hau da: “Gurasoen banaketak haurrengan izaten duen eraginaren trataera Eskolan”. Haurrei egoera honetan laguntzeko prozesuen gaineko ezagutza sakontzea da helburua, horretarako errealitatearen azterketa kualitatiboa eginez. Elkarrizkaren gidoia aldeztatik ezagutuko duzu, bakar bakarrik ikerketarako erabiliko da eta egilearen izena ez da inon agertuko. Elkarrizketaren edukia erabiltzea baimendu nahi baduzu sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Eskerrik asko zure arretagatik

Leioa, 2017-02-8

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola

Leioako campusa, Sarriena z/g

Leioa- 48940

esther.zarandona@ehu.eus

Tf.: 946014600/639368288

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: elkarrizketa zertarako den ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula elkarrizketa aipatu eginkizunerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:

Data:

II. Eranskina- DOKUMENTU OFIZIALEN EDUKIEN AZTERKETA

Aztertutako dokumentuetan agertutako gaiak ondorengo edukiekin erlazionatu egin dira:

- **“Gurasoen banaketan aurrean jarraibide komunak izatearen garrantzia”:**

Kategoria honetan biltzen dira dokumentuetan jarraibide komunak izatearen garrantzia azpimarratzen dituzten artikuluko guztiak, adibidez:

[...] De este modo se da además respuesta a una demanda social que requiere de esta Administración la remisión de una instrucción a todos los centros educativos que regule las relaciones de los centros con los progenitores separados y/o divorciados (*Eusko Jaurlaritzak, 2011*)

- **“Gurasoekin etengabeko harremana”:** Behin baino gehiagotan, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako dokumentuan eta Ikastetxeko Dokumentuetan, gurasoekin izan beharreko etengabeko harremana azpimarratzen da:

Por otro lado, la misma Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, recoge entre las funciones del profesorado la de informar periódicamente a las familias sobre el proceso de aprendizaje de sus hijos e hijas, así como la de orientar su colaboración en el mismo. Los distintos decretos del Gobierno Vasco por los que se establecen los currículos de las distintas etapas educativas y sus correspondientes órdenes de evaluación concretan los procedimientos para garantizar la información y participación de las familias en el proceso educativo de sus hijos e hijas (*Eusko Jaurlaritzak, 2011*)

[...] Asimismo, el profesor tutor y los profesores podrán facilitarle la información verbal que estimen oportuna (*Eusko Jaurlaritzak, 2011*)

[...] Así mismo, el Centro facilitará y procurará que el Docente-Tutor mantenga una relación fluida con los padres de los tutorados a través de las comunicaciones y las entrevistas. (*Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Lerro pedagogikoko atala, 36. Orrialdea*)

- **“Gurasoei informazioa helarazteko modua”:** Hezkuntza Sailak argi adierazten eta azpimarratzen duen moduan, oso garrantzitsua da gurasoei eman behar zaien informazioa zein modutan helarazi behar den jakitea, hona hemen aipatutakoaren adibidea:

[...] Si no se hubiere dispuesto acerca de las decisiones en la esfera educativa, el centro remitirá siempre copia de la solicitud al otro progenitor, tenga o no atribuida la guarda y custodia compartida del alumno/a, salvo que conste que haya sido privado expresamente de la patria protestad (*Eusko Jaurlaritzak, 2011*)

- **“Haurraren ekisainduan, aldaketak gertatu ezker”:** Bai ikastetxearen eginkizunetarako, bai ikaslearentzako hain garrantzitsua den auzi honi buruz aipamen anitz daude, hona hemen adibide bat:

[...] La situación así definida se prolongará automáticamente en el tiempo, salvo que se acredite una variación del régimen de la patria protestad en el sentido indicado (*Eusko Jaurlaritzak, 2011*)

- **“Arlo-emozionalaren garrantzia”**: Ikastetxeak behin eta berriro goraiatzeko du dokumentu ofizialetan hain garrantzitsua den arlo emozionala:

La acción tutorial se llevará a cabo de modo que los alumnos/as, a través de la atención personalizada, avancen en su madurez y personalidad; considerando y estimando no solo su rendimiento académico, también los aspectos humanos, sus necesidades y sus intereses personales [...] (*Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Irakasleria atala, 22. Orrialdea*)

[...] Ikasleen behar indibidualei erantzutea eta beharrezkoa denean laguntza eskatzea (*Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Irakasleria atala, 24. Orrialdea*)

[...] Formamos y educamos dentro un marco afectivo y cercano, en un constante equilibrio entre tres pilares fundamentales: responsabilidad, respeto y disciplina. (*Ikastetxeko webgunea, 2017ko urtarrilaren 11an kontsultatua*)

III. Eranskina- IRAKASLEEI EGINDAKO ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUEN GIDOIA

- Ikasgelan, horrelako kasuren bat izan al duzu? Zer egin duzu?
- Zuk irakasle gisa, nola bizi izan dituzu horrelako egoerak?
- Zein erraztasun/zailtasun izan duzu egoera hauetan?

IV. Eranskina- ELKARRIZKETA ERDI-EGITURATUEN EDUKIEN

AZTERKETA

Gurasoen banaketa eta dibortzio egoeren aurrean, hezkuntza arloan erabakigarriak diren eragile ezberdinei (Ikastetxeko zuzendariari, bi irakasleei, zentroko-psikologoari eta guraso bati) egindako elkarrizketa erdi-egituru-tuetako edukien azterketa burutu ondoren, ondorengoak dira eratu ditugun kategoriak:

- **Gurasoekiko harremanen arrakasta/porrota;** hau da, hirutan irakasleek eta ikastetxe-psikologoak auzi hau azpimarratu dute, familia alderdi erabakigarria baita haurraren garapenerako eta azken hau eskolarekin gehienetan elkarlanean aritu arren, beste batzuetan, ordea, irakasleen lana oztopatu eta gutxiesten du:

I.P: "Respecto a los padres... hay de todo; los que sí que cooperan y los que no. Hombre, aparentemente todos cooperan, (barreak) no te van a decir: no, esto no lo voy a hacer, pero luego en la realidad es complicado y difícil. Yo entiendo eh... entiendo que, me pongo en su pellejo, creo que yo igual intento venderles algo, desde esta silla, entiendo que es difícil. Primeramente, porque esa persona no lo entiende o no lo comparte, o no sé, igual tiene algún tipo de interés de: aunque yo crea que para mi hijo lo mejor es tal, para fastidiar a la otra parte hago lo contrario. Hay muchos factores que ahí influyen"

- **Jarraitutako prozedura;** banandutako gurasoak dituen haurrarekin ikastetxean jarraitzen den prozedurari erreferentzia egin zaio bi elkarrizketetan, hona hemen horren adibidea:

I. 2: "Kasu batean bi gurasoak etorri ziren batzarrerara. Pixka bat lehenago amak esan zidan haien harremanak bertan behera utziko zituztela eta aita etxetik aterako zela, eta pixka bat hori. Gero, hurrengo batzarrerara biak etorri ziren eta arazorik gabe, egin genuen berba alabari buruz, ez genuen arazorik izan, ez genuen ezer komentatu horretaz."

- **Urduritasuna,** hain zuzen, artega dagoenaren egoera da. Ikasle baten gurasoak banandu egiten direnean ikastetxeko irakasleek haien baitan sentitzen duten sententzioa, hau da, haientzat berria den egoera bati aurre egin behar diotenean sortutakoa:

I. 1: "Hasiara batean gogorra da, beste egoera batean sartzen zarelako, zuretzat berria dena. Lehenengo, hasi behar duzu kontrolatzen nola dauden ikasleak; eta gero familiak, hauek garrantzitsuak dira, baina azken finean, gu ikasleekin lan egiten dugu. Umeekin, azkenean, ba... haiek kontrolatu behar ditugu, eta zein egoeretan dauden eta zelan bizi izaten duten egoera hori etxean"

- **Gaia beste profesional baten kontua dela;** izan ere, banandutako gurasoen inguruan informazio nahikorik ez dutenean edo elkarrizketetan, irakasleek, ikastetxeko-psikologoa familiarekin batera, umeari trataera bat eman behar diola agertzen dutenean:

I. 2: "Azken finean, hemen psikologoa daukagu eta horrek gure lana errazten du, umeari eman behar zaion trataerari dagokionez, noski"

I.1: "Dena den, ikasle kopurua eta gure prestakuntza dela eta, egoera hauetan lagundu behar duena hemengo psikologoa da, ezta? Azken finean, arlo honetan oso trebatuta dago eta familiak prestutasun osoz jartzen dira berarekin harremanetan"

- **Estresa;** hots, irakasleek behin baino gehiagotan elkarrizketa erdi-egituratu zein ez formaletan azaltzen duten bezala, ezin dute gai guztietara heldu. Hau dela eta, maisu-maistrek segurtasunik eza eta larritasun-sentimenduak azaleratzen dituzte:

I. 1: "¿Formakuntza gehiago? Gaur egun ez daukagu ezta eskolak prestatzeko denborarik!"

- **Haserrea;** gaur egun, hezkuntza arloak aurkezten dituen murrizketak eta bete beharreko helburuak, arlo-emozionalari ez diote leku askorik uzten; horrek, hezkuntza-profesionalen artean, batere atsegin edo gogoko ez denak eragiten duen poztasunik ezeko egoera aurkezten du.

I.P: "Hoy en día hay muy poco espacio para la inteligencia emocional, un debate muy importante, si en el aula se trabajase más este tipo de inteligencia, en los casos de duelo, ya sea por ruptura de familia o muerte, por así decirlo, tendrían más técnicas para calmarse ellos mismos y afrontar la situación" (haserre doinuarekin)

I. 1: "Zereginak, zereginak eta zereginak. Non dago irakasleontzat eskolak prestatzeko beharrezkoa den denbora, eta gure ikasleen ibilbidea gidatzeko Hezkuntza Sailak eskaini behar digun babesa ?!"

- **Ikuspegi Kritikoa;** nahiz eta hizketaldietan irakasle gehienak oso ernai egon, profesional batzuek hezkuntza-sistemarekiko ikuspegi kritikoak agertu zituzten:

P: "Por ejemplo, al igual que el Berritzegune coge a un niño autista, a este tipo de niños durante un periodo de tiempo igual debería cogerlos, tener algún tipo de atención en el colegio, con la persona de apoyo o con la que sea"

I. 2: "El Berritzegune normalmente, o te estás muriendo (barreak), por así decirlo, o no cogen a niños, es decir, en casos graves o extremos solamente"

V. Eranskina- ELKARRIZKETEN KODEAK

Elkarrizketa erdi-egituratuen edukien azterketa burutzeko eta informazioa antolatzeko ondorengo kodeak erabili dira:

I.Z: Ikastetxeko zuzendaria

G: Gurasoa

I.1: Irakaslea

I.2: Irakaslea

I.P: Ikastetxeko Psikologoa